



Premio María Goyri

Reunido el Jurado de la **VIII Edición del Premio María Goyri a la inclusión de la perspectiva de género en los trabajos de fin de máster -Curso 2018/2019-**

Analizados los 16 trabajos presentados a esta convocatoria por los Másteres de:

Ha decidido otorgar el Premio María Goyri al trabajo

“ZIENTZIA ETA GENEROA: GURUTZEBIDEAK ETA ZIRRIKITUAK”

En cumplimiento del punto 3 de la convocatoria

El Jurado hará público el resultado de la convocatoria antes del 29 de febrero de 2020 en la página web <https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/maria-goyri-viii-edizioa> dando cuenta del nombre y apellidos de la persona ganadora, máster al que pertenece, nombre y apellidos de la tutora o tutor y resumen del trabajo o trabajos galardonados.



Premio María Goyri

Ganadora: Uzuri Albizu Mallea

Master: Estudios Feministas y de Género

Tutoras: Mila Amurrio Vélez y Marta Luxan Serrano

“Zientzia eta Generoa: Gurutzebideak eta zirrikituak”

RESUMEN

Irakurtzera zoazen ikerlanak emakume zientzialari, hezitzaile eta feministen diskurtsoak eta bizipenak aztertzen ditu, mundu zientifikoaren izaeraren, zientziaren ekoizpenaren eta hezkuntza zientifikoaren ingurukoak. Lanaren xede nagusia da emakumeon identitateen, diskurtsoen eta praktika zientifikoaren (eta euren arteko harilkatzeen) ezagutzaren sakontzea, eta horietan guztietan ideologia feministek dauzkaten eraginak aztertzea.

Zenbait premisa teoriko dira lanaren abiapuntu eta gidalerro. Besteak beste, paradigma zientifikoaren izaera historikoa azpimarratzen du idatziak, bi aro historikotan egon diren ezagutza ezaugarritzeko modu desberdinetan sakonduz. Halaber, generoa gizarte-egituratzaile legez aurkezten du, sexuen inguruko hautemate sozialek (kulturaz kultura aldatuz doazenek) gizartea antolatzen dutela, eta antolaketa horren baitan sortzen diren botere-harremanek generoa egikaritzen dutela argudiatuz.

Zientzia eta generoa konstruktuz sozializat hartzeaz haratago, bi sistemok elkar eraikitzaileak direla ere baieztatzen da lanean. Hau da, genero-sistemak egien ekoizpena baldintzatzen duen modu berean, zientzia-sistema modernoak gizon eta emakumeen ekoizpenean eragi(te)n duela defendatzen da. Bada, genero-sistemak mundu zientifikoetan (zientzia ekoizten zein irakasten den munduetan) hartzen dituen formak ezaugarritu nahia da, hain justu, mundu horiek emakume zientzialari eta hezitzaileen begietatik ikusi nahi izatearen arrazoiak.

Zientzia/Genero sistemak zedarritutako botere-harremanez jarduterakoan, baina, boterea ez da indar (soilik) errepresibo legez ikuskatzen. Izan ere, boterea indar askatzaile ere badela dio lan honek; zapalkuntza dagoen eremu orotan erresistentzia eta negoziazioa ere badaudela, alegia. Ondorioz, emakume-kondizioa ez da ahotsen hautaketa egiterakoan erabilitako irizpide bakarra: posizio sozialari bai, baina posizionamenduari ere garrantzia aitortzen zaio. Hain



zuzen ere, diskurtso zein praxi zientifikoa berkonfiguratzeko dihardutenen bizipen eta ekintzak dira mahaigaineratu nahi direnak. Horregatik, ikerlan honek erdigunean jartzen dituen gorputzak, emakumezkoak, zientzialariak eta hezitzaileak izateaz gain, feministak ere badira.

Uste bat dago ahots feministak entzuteko hautuaren atzean. Hipotesia da, norbere burua feministatzat aurkezteak, bi elementuren existentzia bermatzen duela subjektuarengan: genero-sistemak emakumeengan (besteak beste) ezarritako zapalkuntzaren ezaguera partekatua, batetik: eta zapalkuntzoi behatzeko optika garatuak, bestetik. Bestela esanda, posizionamendu ageriko eta feministek irakurketa eta praktika feministak inplikatzeko dituztela aurreratzen da. Alabaina, hipotesi horri erantzun dikotomiko bat ematean bainoago, jasotako diskurtso, bizipen eta ekintzen aniztasuna islatzean egiten da indarra.

Horregatik, ahotsen aukeraketa egiterakoan, askotariko ikuspuntu feministak biltzen ere arreta jartzen da.

Irizpide horiek guztiak aintzat hartuta aukeraturiko sei mintzaideren esperientziak, hautuak eta praktikak jasotzen ditu idatziak, mundu zientifikoaren izaeraren, zientziaren, ekoizpenaren, eta hezkuntza zientifikoaren ingurukoak. Sakoneko elkarriketetan jasotakoak literaturarekin solasean jarri gura harilkatzen du diskurtso horien guztien analisia. Hala, orriz orri, ehunduz doaz kontakizunon arteko konbergentzia, dibergentzia zein bateraezintasunak. Eta, kontraesanak kontraesan, taxutuz doaz, orobat, zientzia habitatzeko, ulertzeko eta egiteko bestelako moduak; modu feministago, inklusiboago eta, zergatik esan ez, iraultzaileagoak.